


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

ZARAGOZA PLAZA 1



Egilea eta data: Ramon Cortazar; 1922

Deskribapena

Bi kantoi dituen eraikina, behe oina, jatorrizko sei goi oin, azkena atzeraemana (1959an oin horren jatorrizko atzeraemangunea txikitu zen) eta estalkipean 1959ko jasodura atzeraeman bat dituen. Harlanduzko fatxada, kantoian hormigoizko begiratokiak dituen, azken oinaren mailan hormigoizko kupulekin errematatuak. Azken hiru oinen tratamendu berezia, eraikinari erremate konplexu bat ematen diona.

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berriazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 6. goi oina, kupulak eta azken jasodura atzeraemana (7. goi oina) izan ezik.
 - B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; kupulak.
 - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari loturikoak, fatxadaren eta behe oineko baoen konfigurazio bateratuarekin loturikoak barne.